

LEGORREKO ARRANTZALIA

JOSTIRUDIA BAKAR  
ETA BI ZATI ATAL BEREAN

BI-GARREN ALDEERA ZESTUA-N IRABAZITAKUA

JOŠE ARTOLA

ERRIAL BINA

DONOSTIAN  
J. BAROJA ETA SEMEAREN MOLDIZKIRAN  
1898

LEGORREKO ARRANTZALIA

JOSTIRUDIA BAKAR  
ETA BI ZATI ATAL BEREAN  
BI-GARREN ALDEERA ZESTUA-N IRABAZITAKUA

JOŠE ARTOLA

SAN SEBASTIÁN  
Imprenta de J. Baroja é hijo, Constitución, 1 y 2

1898

IRUDIGILLEAK

EGINTZALLIAK

Mariya (esneduna) .....	Buenechea Jesusa
Andre Teresha .....	Ganboa Karmen
Iñazio Arrantzale (Patroya) .....	Kasal Felipe.
Agustin (erdi bertsolariya).....	Artola Joshé.
On Juan (Errejidoria).....	Altuna Raimundo
Pedro (erri gizon alaya).....	Altuna Pablo
Praishku (baserritarra) .....	Andonegi Domingo
Mutilla.....	Uriarte Joakin
Lau (tokalari zizarristak)	

Euskal jostiruditar lagunkida “Euskaldun Fedea-ri” eta bere Dianagusi  
On Juan Ignacio Uranga-ri donkitzen diyo maitasun aundiyaren gayaz  
eguintza urri eta goitiritzi gabeko au bere egille

JOSÉ ARTOLA-TARRAK.

## LEGORREKO ARRANTZALIA

---

*Oarkera.*- Biltokiyak aurkestatzendu kalia, eta egilliaren ezker aldetik, On Juan errejidoria-n echia bere leyuakin, eskuitara Iñazio patroya-n echia kale aldetik sarrera dubela. Burtiña alchatzerakuan azaltzenda Iñazio, arrantzako soña eta otarrarekin.

### LENBIZIKO IRUDIA

#### I

#### **Iñazio bakarrik**

IÑAZIO

Jaungoikuari ezkerak. ondo egin degu gaurko irteera eta ibillera. Lana da, munduan dan gauzik onena; lanák erremediatzen ditu lanak. Nekian urrengo soseguak dira gosuenak eta eztsuenak. Nuan echera, nere ama maitiarengana, ¡gashua! pozkidatu dedilla bera seme au ikusita.

Orañ erropaz aldatu eta onera, bai, onera; ea ikusten detan nere biyotz tentatzalle Mariya, onuntz, aurrera etortzen da egunero, euskal erriko jazkera ta usariyo jatorrian, garbi ta chukun On Juan errejidorian echera, esnia ekartzera, ori da nere amak eta nik begiz jua. On Juan-ek nere amari esan ziyonez: Mariya nitzaz gustatua dagola: Berak arpegi alaya jartzen dit beti ikustian, nik berriz alayagua, ¡bañan aiñ naiz lotzatiya! ez det baliyo berari nere biyotz shamurreko borondatia agertzeko... Agustin mutill zarra badator, ori det nik lagunik maitiena munduan; bañan nere asmoaren berririk ez daki, eta gorde zagun beti bezela barrengo arra ez dezala ezer igarri.

### BIGARREN IRUDIA

#### II

#### **Lengua eta Agustiñ**

*(Agustiñ agertzen da ezker aldeko kaletik, orrantzako otarra galtzar bean dubela eta belarriyan zigarrua).*

IÑAZIO

¿Agustiñ, zer modu?

AGUSTIÑ.

¿Ondo eta i?

IÑAZIO.

Ongi Jaunari ezkerak.

AGUSTIN. Pozkidatzenak.  
IÑAZIO. ¿Zer modu gaurko arrantza?  
AGUSTIN. Ainbestian mutill, ibillera luzia izan diagu, bañan nekatu arren zerbait arrapatzen bada, neke ta naigabe denak astutzen dituk.

IÑAZIO. Arrazoi dek.  
AGUSTIN. ¿Eta zubek nola zerate, ezer bai al zan?  
IÑAZIO. Bai, suertia izan diagu, chapela bete aizerekin giatzikan erdi penatuak urrutira, eta uste gabian inguruan sortu zaiguk arraya, eta egin diagu ancheta.

AGUSTIN. ¿Bañan zer zan, ancheta edo arraya?  
IÑAZIO. Y beti iguala, puntuak artzeko.  
AGUSTIN. ¿Galtzerdiya alaiz bada puntuak artzeko?  
IÑAZIO. Ba... ba... utzi zazkik chorakeriyak eta guazemak aguro aldatzera.

AGUSTIN. ¿Gero nora bilduko gera?  
IÑAZIO. Praishkun sagardotegira.  
AGUSTIN. Ongi zio! an zانبulla ta lenta egingo diagu.  
IÑAZIO. Aizak Agustiñ, chinchueneko baserriyan izugarritzko sagardua asi omen dek.

AGUSTIN. ¿Bai?  
IÑAZIO. Bai, eta gañera bola toki ta leku ederrak omen dizkik, lenago ere baserriyan ordu gozuak igaro izan dizkiagu.

AGUSTIN. Ik bai, bañan nik...  
IÑAZIO. Ik ere bai, beti ni naizen lekuan izaten aiz ta... mutill joan bear diagu.

AGUSTIN. Urruti egongo dek; eta gero erremolkian etorri bearko diagu.

IÑAZIO. Enkallo geatzen ba aiz, botako dizkiak *amarra*.  
AGUSTIN. ¿Amaikak ez al dira obiak?  
IÑAZIO. Guazemak achandela izango dek eta...  
AGUSTIN. Bañan ¡Iñazio patroya! ik sagarduangatik edo gonadunagatik nai dek joan?

IÑAZIO. Y bezelako mutill zar selosuari egiya esan bear zayok bai, eta... joaten nak biyon gatik.

AGUSTIN. Ni berriz gonaduna-n ondora ez joatitak itzuliko nindukek, itsas zabalera edo arroka tartera, naiz killaz gora gelditu.

IÑAZIO. Bai esan... paper asko egiñ, bañan gero kupel ondora, atrakatu ta fondo bertan.

AGUSTIN. Y bai anklak bota ta egoten aizela.  
IÑAZIO. Bai, kupelari kontu egitiatik.  
AGUSTIN. Edo neskari kontu artziatik.  
IÑAZIO. Eta i?  
AGUSTIN. Ni...? beakiyok Iñazio, esan diat milla bider mutill zar geratuko naizela, eta ala geldituko nak.  
IÑAZIO. Eskontzen ez aizen bitartian.

AGUSTIN                    (*Presaka*) Bai ta eskondu ta ere.  
INAZIO                    ¿Zer, zer?  
AGUSTIN                    Ez, ales-panu-artzen, bizi naizen bitartian nai nikan esan.  
INAZIO                    Denbora izango dek testigu, eta ni ere bai.  
AGUSTIN                    Bai orishe, orain guazemak aldatzera ta gero itzegingo diagu.  
INAZIO                    Bai ala dek, guazen oraiñ... Gero onera bertara bilduko gaituk.  
AGUSTIN                    Ik echia emen daukak ni baniak nere echera emendik barrena.  
INAZIO                    Emendik barrena ez, emendik kampora.  
AGUSTIN                    Bai, ala dek.  
INAZIO                    Adiyo Agustiñ gero arte.  
                                  (*Ontan azaltzen da Mariya buruan otarra ta marmita zapi zuri tartian ageri duela. Agustiñ ondotik sartzen da belarriko zigarrua pishtuaz.*)  
MARIYA                    Egun on Jainkuak dizula. (*azalduaz*)  
AGUSTIN                    Egun on zuri ere. Nuan emendik aguro aldatzera (*joaten da*)

### IRUGARREN IRUDIA.

#### III

#### *Mariya bakarrik*

MARIYA                    Onezkero berandu iritzirik egongo dira nere esne artzalliak; izan ere beti zerbait gertatzen zaigu birian eta gaur, lagun baten zai berandutu egin zait. Nuan, nuan aguro nere eginkisuneta. Onuntz sartzerakuan ikusi det Iñazio, bere echera sartzen ari dala; beti bezela ura begiratu chorrocha egin dit ziarka gizagajuak. ¿Zer umilla eta zer lotsatiya dan, ez du beste batzuen antzik... baña...! ¡Jesus neria! ¿zer ari naiz ni denbora pasatzen emen? On Juan nagusi ona, zai egongo da eta nuan nuan lenbailen. (*Sartzen da On Juan-en echian*)

### LAUGARREN IRUDIA

#### II

#### **Inazio bakarrik** (*ondo jantziya*)

INAZIO                    ¡Au ez da misheriya! nik biyotzian senti detanaren naitasunaren jabia ikusi det emen sartzen, ta bere ondoren nator korkoya beitarra bezela: beti itz gozoen bat esan naiyan nabill bakarrik arkitzian, ta

bakarrik eratzian chipiroya baña biguñago jarri eta mututu egiten naiz zoragarri ari begira baba dariyotela. ¡Ai nere barren sutzallia, izazu chingar bizi au itzaltzeko itzaltzeko graziya, bestela kishkalduko nau su gabeko gar onek, bañan... Agustiñ badator; ez dezala igarri nere biotzen konturik, gorde zagun asmo au, libru bat ichitzen dan moduan, orri batek bestia estutu eta eztaltzen duben giza... Agustiñ-i esango diyot bere zai nengoala.

## BOS-GARREN IRUDIA

### V

#### **Iñazio eta Agustin** (*au apaindua*)

AGUSTIN Emen alaiz Iñazio? Goiz prestatu aiz.  
INAZIO Bai, orainchen etorri nak eta begira niokan ageri ote intzan.

AGUSTIN Orren chikiya al naiz ez ikusteko.  
INAZIO Betiko moduan ator umorekua.  
AGUSTIN Bai, Jainkuak doaya ori eman zirak, ea guazemak Fraishkuneko sagardotegira, emen gaur egon gabe lurrari begira.

INAZIO. Ez, egon ari pishka bat.  
AGUSTIN. Zer dalako? damutu egin alzaik lengo itza.  
INAZIO. Ez gizona...  
AGUSTIN. Ni eznak gizona. (*Presaka*)  
IÑAZIO. Bai bazekiat zer aizen.  
AGUSTIN Zer nak bada.  
INAZIO Mutill zar... zimarroya; orra esan.  
AGUSTIN Guazen, guazen lema jiratuta.  
INAZIO Agustin lagun zarra, emen giro ederra ziok eta pishka batian egoteko gogua zeukat.

AGUSTIN Zertan? choriyak isutzen, edo izarrak ikusten.  
INAZIO Bai... ikusi... nayan.  
AGUSTIN Zer aizia?  
INAZIO. Ez pasia, (neskacharena).  
AGUSTIN Au dek kasketa klasia.  
(*Irtetzenda Maria Errejidoriaren ehetik eta kanpora joangoda*).

ZEI GARREN IRUDIA

VI

**Lenguak eta Maria**

MARIA Agur Iñaziyo, konpañiyarekin.  
AGUSTIN Agur marmita ta batalloyarekin.  
(*Mariya dijuala atzetik begiratuas*) Zeru goyeneko izar dizdizariya, ori dek mirabia eder ta guriya: bazirudik, Mayatzeko marrubiya.

ZAZPI-GARREN IRUDIA

VII

**Iñazio eta Agustiñ**

INAZIO Ederra iruditu alzaik?  
AGUSTIN ¡A, marrajua! ez al diyok begiratu?  
INAZIO Nik?... shegaran poparian andara biziyan joandek eta.  
AGUSTIN Eta... eta; ik ez nak ziriyyik sartzen gezur ta bar Iñazio, i orren usayian abill izurdia bokartaren bezela orrengatik engon emen sai, argatik ikusi dekanian zuri zuri egiñ aiz katu arrayen modura, guazen guazen Fraishkunera.  
INAZIO A?... Chinchueneko baserriyan asi omen dek sekulako sagardua.  
AGUSTIN Orduan sekulakua bada, ez dek beñere aituko.  
INAZIO ¡I beti iguala?  
AGUSTIN Bai, nai ta nai ez.  
INAZIO Egiya.

ZORTZI-GARREN IRUDIA

VII

**Lenguak eta Pedro** (*au ondo jantziya*)

PEDRO Kasho jaunak.  
AGUSTIN Ongi etorri Pedro.  
PEDRO Zubek, arrantzaliak jakiten dezute sagardo ona non dagon eta ikusi zaituztetanian galdetzera etorri naiz.  
INAZIO Gaur jakindu degu Chinchueneko baserriyan asi dala choch berriya.  
AGUSTIN Bai, onek esan duben-ez sekulakua omen da ta oraindik iñork eran gabia.  
PEDRO ¡Abek esaerak! beti bezela umorekua zaude.  
INAZIO Au ez aldaki zein dan?



PEDRO            ;Bai, bai! ongi ongi eta ¿zeiñ aldetan egiten da baserri ori?

INAZIO            Esan digutenez galtzara luze pasa eta eskui aldera dagon echea omen da, bere bola toki ta guzi, zelai ederrak eta leku alayak omen ditu bere inguruan.

AGUSTIN          Gu ez gera beñere izan baserri ortan bañan Jaungoikuak nai badu guk bezela, gaur goiz shamar itsasotik etorri ta artsalde guztirako joan bear degu.

INAZIO            Onezkero Praishkuenukuakin pasa bearko degu.

PEDRO            Eskerrikasko Jaunak, agur.

BIYAK             Agur Pedro, ondo ibilli.

INAZIO            Guazemak gu ere beti emen egon gabe, oneskero sagardua ostutzen zia gok.

AGUSTIN          Ostu, señek, lapurrak?

INAZIO            Beti igual, guazen guazen. (*joanas*)

AGUSTIN          Ta an egingo diagu fondo, ara esan nik orain ondo. (*joaten dira*)

## BEDERATZI-GARREN IRUDIA

### IX

**On Juan bakarrik** (*eskuan makillakin irtetzen da bere ehetik.*)

ON JUAN           ;Aberatsak, bai! ¡aberatsak! zertarako det dirua, nayago nuke orain joandiran oyen sasoya: Dirurik ez nubenian nuben apetitu ona, eziñ azea, iñola bete eziña; eta oraiñ diruba detanian ezertarako gogorik ez ¡au mundu desberdiña! esan zagun..., gauza guziak ez dira nonbait komeni, dirua ere borobilla bat dalarik, ez ditu bi alderdiyak igualak. ¡Zer egingo da bada! Esagüera badet eta argatik dena pazientziyan artzen det; Jaungoikoak denari doai diferentiak bigaldu dizkigu, bati politasuna, bestiari gizentasuna, beste askori ezaguera, ala neri eman dit pazientziya, eta kontentu naiz nere izaerakin. Maria esneekartzalliak esan diranez ayen echian Chinchuenian sagardo gustiz ona saltzen jarri dutela, eta naiz ez eran, pasiatuaz joango naiz. Ango usai gosua aituz eta jendia ikusiyaz denbora obeto atzeginduko det; gañera Maria egongo da sagardo saltzen, eta chuliatuko det pishka bat: bera ere kontu eta tildietarako oso grazi aundikua da, lastima litzake asko moduko eskuetan erortzia orlako arrosachua, nuan nuan, thapa thapa bastarrak ikusiyaz, egualdi ederra dago ta...

(*joaten da, eta burtiña kalia jasuas agertzen da sagardotegiya*)

## BI-GARREN ZATIA edo CUADRUA

Agertzen da baserri echea esker aldian, goyan leyuakin, eta sarbidea bean (ehekua) sagardotegiko atea gordea edo basterretik, eche aurrian arbol eta kanpo gausak, eche kantoyan alki luzea, eta paretetik zintzilik ol bat letra abekin

### CHOCH-BERRIYA

#### AMAR-GARREN IRUDIA.

X

#### **Iñazio bakarrik**

IÑAZIO

Soñekoz aldaturik orra etorri goiz bazkaldu ta Chinchuanera. Urruti egiten da, bañan sasoyak dena alderatzen du.

Agustiñ mutill zarra nerekin batian zetorren ta or birian gelditu da zerbait egiten; ichogongo diyot, laizter da emen.

¡Au leku pacharakua! au paraje sanua, au brisa ederra nabaitzen da emen. Bela betian nuala iruritutzen zait ollaska tartian batelchuari urak zirri egiñaz.

Ez dakit zergatik bañan nere biyotzian dardara gozo bat sentitzen det. Au atsegin gozua, ¡au estitasuna! ¡au gozakai pare gabia! Zeiñ ederra eta pozgarriya dan alaitasun au, bedeinkatua izan dedilla Euskal Erriya bere choko, bastar, mendi ta zabalerakiñ.

Agustiñ ezta ageri (*begiratuas*), baso bat sagardo eratera nua. Jainkuak estraña on digula eta probechu ona egiteko graziya, orain ikusiko degu fama beziñ ona ote dan (*eskuari chistu eman*) abiyadura artu zagun eta ziyaran barrenara. (*sartzera dijuala sartzen da Agustiñ.*)

#### AMAICA-GARREN IRUDIA

XI

#### **Iñazio eta Agustiñ** (*au sartzen da kantari*)

AGUSTIN

Inazio gure patroï aundiya...

INAZIO

Ala ere bizi aiz?

AGUSTIN

Uste diat bayetz, ez alnak ikusten?

INAZIO                    ;Bai mutill... asperturik ire sai egotes, oranchen niakan baso bat sagardo ateratzera, eta i etorri aizen ezkerero, ua aurretik, eta atera sak.

AGUSTIN                 ¿Ni zakalari?

INAZIO                    Ez dek esaten zakalari baizik ateralari

AGUSTIN                 Bai, eta i sartulari *eskua abora iguaz*)

INAZIO                    Tira tira...

AGUSTIN                 ¿Tira? ¿zeñi tira?

INAZIO                    ;Ba... ba!

AGUSTIN                 ¿Baba? Ez dek charra jateko.

INAZIO                    Itz guchi ta berriketa asko.

AGUSTIN                 Guazen guazen. I beti zakurren izatza bezela atzetik; ez diat ikusi munduan, i bañan ospelagorik. Ni ez banitz, etzekiat zer egingo uken ik: ik ez ukan patroya izan bear, baizik iskribientia.

INAZIO                    Guazen guazen.

AGUSTIN                 Nora?

INAZIO                    Kupelen ondora.

AGUSTIN                 Orain dek bada denbora.

INAZIO                    Uste gabian bertzuetan ari gaituk.

AGUSTIN                 Ori eran gabe, gero kontuak eta kantuak.

INAZIO                    Askotan umorerik geyena pasatzeko asmuan etorri, ta gertatzen dek charrena pasatzia.

AGUSTIN                 Eta tontoturik jartzia.

INAZIO                    Eta triste jiratzia.

AGUSTIN                 Bai, gertatzen dek, bañan guazen eta eran zagun ta pakia eman zagun.

IÑAZIO                    Bai ori dek onena, guazen. (*dijuaz*)

## AMABI-GARREN IRUDIA

### XII

#### **Pedro bakarrik** (*azaltzen da kopeta legortuaz*)

PEDRO                    Au leku alaya, au giro ederra, eta au sasoya ibiltzeko. ;Zer atzegiña dan onla oñez etorri ta sagardua eratia! Euskaldunentzat gozotasun oberik ez da munduan

                              ;A zer gustora erango detan sagardua!... Ta au usai gozua ta jatorra nabaitzen dan kanpotik. Zer izango ote da bertatik. Nuan estarri lakar au leguntzera euskal-erriko oliyo legunarekin; ori da gure baltzamua, ori da gure poz-emallia euskaldun alai-garriya.

AMAIRU-GARREN IRUDIA

XIII

**Lengua eta Agustin** (*Pedro sagardotegira sartzekuan irtetzenda Agustiñ eta topo egiten dute elkarrekin.*)

AGUSTIN Iya enkallatu giñan tira bira eginta.  
PEDRO Bai, uste gabeko arkiera zan... ¿Agustin nai dezu eran?  
AGUSTIN Ez orain nator eran ta.  
PEDRO Gizona beste batek ez dizu gaitzik egingo?  
AGUSTIN Ez jauna ez, kontuz ibilli bear degu, bestela gero apasta bota ta arrastan eramango gaituzte  
PEDRO Gero arte bada. (*joanaz*)  
AGUSTIN Bai gero arte.

AMALAU-GARREN IRUDIA

XIV

**Agustiñ bakarrik**

AGUSTIÑ Ori sagardua; aingira baña legunago sartzen da. Eta aushen da uste gabeko lekuan aiskideak billatzia. Atzo kalian ikusi genuben Maria, errejidoriaren echera esniakin joaten dana, dago sagardua saltzen, eta... an agur Iñazio Konpañiyarekin esan zuben begiratu zorrotza botiaz. Iñazio eta orrek zerbait izan bear dute, esan zagun ezer gabiak ez dira izango nozki, nezkak benepiñ eche onekua diruri. Orain ere ongi etorri egiñaz arpegi alayakin itz onak eta gozuak esan dizka, eta Iñazio bere onduan dago lapa arrokari eatziya bezela, zenbat alegiñ diyotan kanpora irteteko, esan dit: ongi dagola an, ez daukala ibiltzeko gogorik, nekatua dagola ta... zenbat orlako aitzeki, bañan... ni marrajua naiz ta ukatzen badu ere alperrik da, Mariak biotza Iñazio-ri maria-gora jarri diyo, bañan ¡gizarajua! itsasuan trebia ta bildur gabea da naiz eztropanan ere bai: bañan nezkari amoriyua egiten katu-arraya bañan motelago ta chipiroya bañan biguñago da.

Nik ez det ezkontzeko asmorik mutill zar geatutzeko asmuak ditut, bizi naizela eta ez naizela, bañan ezkontzeko asmua banu eta orrek bezela begiz jua izan, aguro beita bota ta amuan arrapatuko nuke, edo sarian legun legun, eta saretik igasi asiko balitz orduan ¡klak! arpoayakin neretzat. ¡A tontotzarra! egonari or maskulluen gisa denbora galtzen baba dariyokala abotik. Tokan ari diranari begira egotera

nua pishka bat ta laizter etorriko naiz berriz laugarrena eratera emen buyak bezela beti batian egon gabe. (*dijua kanpora*).

AMABOST-GARREN IRUDIA

XV

**Pedro bakarrik.** (*irtetzenda sagardotegitik*)

PEDRO Sagardo ederra dago; arraso zuten arrantzaliak ayek jakitendute nun dagon erari ona; jori da kolore fiña! chinpartak pill pill gañera ateratzen zaizka, eta oliyo frantzes bañan legunago sartzen da, eztarriyan zirri egiñaz; jori mama! Zeñek lezaken izan echian urte guztirako.

AMASEI-GARREN IRUDIA

XVI

**On Juan ta Pedro** (*On Juan sartzen da chalekua askatuakin eta eskua nitzal-kaya.*)

ON JUAN Artzalde on Pedro?  
PEDRO Ala berian dezala bedorrek-ere on Juan, ¿emengo aldi?  
ON JUAN Bai, egualdi ona dago ta, jiracho bat egiñ denbora pasias.  
PEDRO Nai du sagardo ona eran? aterako det nai badu.  
ON JUAN Ez, ez; ezkerrikasko, ezer jangabe ez det oiturik eta jan ta ere guchi, baso pare bat geyegi ditut artzalde guztirako, ez zalia ez naizelako baizik eziñ detalako.  
PEDRO Bedorrek balezake bada, diru duna ta...  
ON JUAN Ez ta ori kontua, gaitz egiten ditalako.  
PEDRO Orduan nai badu, goyan sukaldian bishigarri pishkabat ezkatuko det.  
ON JUAN Ez ez; lan ori ez artu neregatik neroni iyoko naiz. Birez echeko andriari diezol egingo diyot. Guazen Pedro, zu ere igo zaitia, elkarrekin denbora atzeginduko degu obeto.  
PEDRO Nai duben bezela. (*izketan joatendira*)

AMAZAZPI-GARREN IRUDIA

XVII

**Mutilla** (*charrua ezkuban dubela sagardo billa*).

MUTILLA

Ez dute guchi eraten zelayan dauden ayek: iru-  
garren charrokaraen billa nator ¡ori entrama!  
(*zartzenda sagardo billa*)

LAUTOKALARIYAK

1. Ez ta basta galtzia, chandaka izaten dituk  
lukainkak.
2. Urrena zuben chanda izango dek irabaztia.
3. Bai galtzen ez badegu.
4. Ori egiya. (*zartzen dira eratera*.)

EMEZORTZI-GARREN IRUDIA

XVIII

**Agustiñ gero mutilla** (*Agustiñ etortzenda tokalariyen ondoren*)

AGUSTIN

¡A zer partidua jokatu duten oyek! Eran zagun guk  
ere baltzamu ori. Oraindik or egongo da Iñazio  
krishalluen giza begiyak dir dir egiñaz. (*bakallua  
gerrikotik atera ta janaz*) bakallu au neska-zarra  
izango zan, bai legorra ta gaziya dagola.

(*Mutilla irtetzen da charruarekin eta estropozo egiten du koskan.*)

AGUSTIN

Iya charrua ishuri ta sagardua autzi ukan.

MUTILLA

Ederki emane.

AGUSTIN

Chiki; osaben echian parienterik bai alde?

MUTILLA

Bai; (*ziarka begiratuaz*)

AGUSTIN

Bai jauna esaten dek.

MUTILLA

Kaballeruari bai?

AGUSTIN

Ta ni zernak bada?

MUTILLA

Bakallerua; orain ere bakallua ezkuau daukazu.

AGUSTIN

(*erdi parrez chuliatuaz*) Birian charrotik egiten alde  
churrut?

MUTILLA

Onuntzian ez, utza egoten da ta...

AGUSTIN

Eta auntzian?

MUTILLA

Batzubetan bai pishka bat.

AGUSTIN

Ta beztietan?

MUTILLA

Bestietan... geshiago. (*joanaz*).

AGUSTIN

¡A zer aparejua aterako dan ori ere aunditzian,  
baserritar eskola ber bera dakar!

(*irtetzen dira sagardotegitik lengo lau tokalariyak*)

1. Guazen oraiñ lagunak trukatuta.

2. Ez ez; languak berak. (joanaz)
3. Bai bai ez pentza ikaratuko gerala.
4. Ori ori; len bezela (*joaten dira.*)

EMERETZI-GARREN IRUDIA

XIX

**Agustin bakarrik.**

AGUSTIÑ

¡Au diferentziya! abek jostatzen ederki beti kanpuan, eta Iñazio aspuen aizia bezela beti barrenen. Eran zagun bost-garrena, zeigarrenari biria erakusteko. *sartzera dijuala asaltzenda Praishku*

OGEI-GARREN IRUDIA.

XX

**Agustin ta Praishku** (*au dator pipakin zar pacharakua.*) *Ezker aldetik*

PRAISHKU Kasho gizon bagae  
AGUSTIN Bai aitona, bagaude.  
PRAISHKU Ni ez naiz aitona.  
AGUSTIN Ni ere ez gizona.  
PRAISHKU Zer zera bada pertsona?  
AGUSTIN Ez mutill zarra Jaunari graziyak.  
PRAISHKU Ni bezela orduan.  
AGUSTIN Bai ta nai ere lagun zarra; kanpo onak al daude?  
PRAISHKU Bai bai, onenbestian kontentu gera.  
AGUSTIN Orain sagardua eratera e?  
PRAISHKU Ez ez; gaztientzat sagardua, nik eraten det bañan nayago det goyan ardo pishka bat eran arreba Tereshari itz bi egiñaz, gañera ikusi det gure eche jabe on Juan onuntz etortzen eta arren kondairak eta ipuiyak aditzen ez gera beñere aspertzen ¡aiñ ona da!  
AGUSTIN Bañan baso bat sagardo eran ta igokoda.  
PRAISHKU Ez, egiya esatendizut; nayago det baso bat sagardo bañan bi baso ardo.  
AGUSTIN Ez du misherikordiko agurien antzik.  
PRAISHKU Zer bada?  
AGUSTIN Ayek baso bat sagardo ta bi baso ardo bañon nayago dute...  
PRAISHKU Zer?  
AGUSTIN Chopin bat ardo. Nik berriz sagarduari naitasun geyago diyot.  
PRAISHKU Bai bakoitzak bere iritziyak.  
AGUSTIN Ari beza, sagardo saltzen dagon nezkach eder ori bedorren illoba da beraz?

PRAISHKU. Bai zergatik.  
AGUSTIN Jakitiagatik.  
PRAISHKU Gusto badezu igo zaitia gora nerekin.  
AGUSTIN Ez ezkerrikasko.  
PRAISHKU. Gero arte bada  
AGUSTIN Gero arte lagun zarra *Praishku sartzenda*  
Nuan ni ere eratera. *sagardotegira joatenda.*

OGEITA BAT-GARREN IRUDIA

XXI

**On Juan (*leyotik*) ta gero Andre Teresha**

ON JUAN ¡Au girua! ¡abek kanpo zelai begiragarriyak! ¡zer atsegiña ematen duben alaitasun onek! ¡Zer ederra dan Jaungoikuaren obra! ¡Bedinkatua ta bedinkatua beti ta beti izan dedilla gure egillearen izaera dontsua!  
(*Andre Teresha irtetzenda platera ta baso bi utzakin sagardo billa*)

ANDRE T. Gure naguziyak chohekua biar omen du ta, eraman bearko diyogu. (*sartzen da*)

OGEITA BI-CARREN IRUDIA.

XXII

**Agustiñ on Juan ta andre Teresha**

AGUSTIN (*Sagardotegitik ateriaz*) ¡Ederra dago, ori mama!  
ON JUAN (*leyotik*) Zer degu Agustin bakarrik?  
AGUSTIN Ez jauna Iñaziokin.  
ON JUAN Eta non dago bera  
AGUSTIN Naparruan jauna Bera.  
ON JUAN Ez; Iñazio  
AGUSTIN Kupel onduan  
ON JUAN Eta Maria aldago sagardo saltzen?  
AGUSTIN Bai jauna.  
ON JUAN Beraz ez da mishteriyo an egotia bere onduan ¡gizarajua! igarriya nago gure echera esniakin etortzian zelatatzen dubela. ¡Zer mutill ona dan (*andre Teresha sagarduakin.*)

ANDRE T. Emen naiz ni bi baso betiakin.  
AGUSTIN Ariyo amona.  
ANDRE T. Begira ni ez naiz amona desiuak baditut bañan.  
(AGUSTIN) Uste det bada laister izango ote dan.  
ANDRE T. Nere alabak ez du gizonik.



AGUSTIN Ez bañan, bai gizon gaya ona ta zintzua, ez da egiya on Juan. (*leyora begiratuas*)

ON JUAN Bai oso mutill ona eta prestua da,

ANDRE T. ¡Abek esatekuak abek... (*igotzenda echea*)

ON JUAN Atoz Agustiñ gora, igo zaitia, chardiña biziyak jango dituzu.

AGUSTIN. Ez jauna neri ituak gustatzen zaizkit.

ON JUAN ¡Gizona...!

AGUSTIN Ezkerrikasko jauna; bakallu... egiyetako bakallua jaten ari-naiz.

ON JUAN. Igo zaitia mokaru bat bederik artzera.

AGUSTIN Naiduben bezela bada; ornator *on Juan sartzenda leyotik* ¡A...! (*jendiari*) Ori da gizon kanpechanua; arrantzale eta erriko jende guztiyak maite du aita on bat bezela. ¡Eta orrek dituben karrakelak! (*eskuakin diruengatik biatzak igurtziyaz*) Igo nadin azarretu ez dedin. (*igotzen da*)

#### OGEITA IRU-GARREN IRUDIA

#### XXIII

#### **Iñazio bakarrik**, (*Irtetzenda sagardotegitik*)

IÑAZIO ¡Au lan bide penagarriya! kulubizen antzera dakart burua. ¡Zer utza naizen! zori onaren oparotasunez betia arkitu naiz, nere biyotz churrupagarriyaren onduan, itz bi barrengoak esateko asmo osuan alderatu naiz, kolpez nere asmoa berari esan naya ta... bakartazunian zerbait esatiak bildurtu nau, gero norbait etorri da eta orduan, etzitzaidan ondo iruritzen esatia. Desiatzen nuben berriz bakarrik gelditzia berriro, eta bruma jartzen zitzaidan; pentzatzan nuben eran da geyago bishitu edo pishtuko nitzala ¡eran eta alperrik! ¡eziñ iñola! (*sagardotegira begira*) ¡Gashua! ez dakizu nik zenbat sufritzen detan zugatik... bai zugatik. Berak emandit ogi gañian jatera zijuan pushka ¡zer amoriyokin! bazirudiyen ogi gañean bere biyotza ematen zirala! Ta nik orduan artu ta gosho gosho begiratuaz esan diyot “ezkerrikasko” zeñak erantzun ditan: Barkatu guchi gatik, albanu emango nizuke detana eta ez detana. Iya aur bat bezela negarrak chuliatu nau eta asi naiz malkuak eziñ gorderik, lertuko ez banitzan alde egiñ bear izan det lagunen aitzekiyan. Nuan oster... ¡bañan ez! ez naiz joango... bañan... bai, joan egingo naiz; ichaso charrari ere gogor egiten zayo, eta nik ere barrengo bildur gogorrari,

gogorrago egingo diyot. Nuan dan bezela nere asmo on au esatera... bai gauzak asi ezker aldian lenena egin bear dira...

An egongoda gashua, gau tristian izar dizdizariya egoten dan bezela, bakarrik ezalpe illunian, eta zenbat eta illuntasun geyago inguruan orduan ta dizdirasun eta argitasun geyago egiñaz.

Eziñ egon naiz sozeguz, olatutan baga aundi tartian nabilela iruritzen zait.

(gora begira) Aingeru guardakoa jarren! lagun zaidazu indartzen fede oneko pauso abetan.

(sagardotegira sartzera dijuala irtetzenda Agustiñ ehetik)

## OGEITA LAU-GARREN IRUDIA

### XXIV

#### **Agustin ta Inazio.**

AGUSTIN Inazio bizi alaiz?  
IÑAZIO Ez alnak ikusten?  
AGUSTIN Bai jia ituan ateratako baten moduko begiyak daukaskik! (*chuliatzen*) tira bira egiñ aldeak?  
IÑAZIO Bai maria... iya.  
AGUSTIN Ah! ¿Mariya! au dek komeriya i or egon aizen bitartian goyan izandu nak, on Juan errejidoria eta Pedro alaya-kin mokaru bat artzen eta kontu ederrik esan ditek iregatik.  
IÑAZIO Zer ziyoten bada?  
AGUSTIN (*jendiari*) A zer ikara eman bear diyotan.  
(*orain berari*) Mutill... lagun on baten gatik esan bear ez diranak.  
IÑAZIO Esan nazak zalantzan iruki asi gabe.  
AGUSTIN Ez alaiz asarretuko egiya esan ta?  
IÑAZIO Egiyak ez dik iñor ikaratzen.  
AGUSTIN Bada... esan ditek; i tonto bat aizela, nezkacharen onduan buya baten moduan agola, nezkach orrek bere majua badubela, ta laizter zenar aberatsa artzeko asmoetan dala, tantza loriya jarri biar dala amuan ori arrapatzeko, eta orlako makiñabat gauza, eta ayekin batian ziok beste gizaseme ezkongai bat, lenago emen nerekin izketan egon ta igo dek, mutill...  
IÑAZIO Ez dek posible Mariak neri ori egitia, bestela zerbait esango ziakan, eta gañera aiñ ongi portatu dek nerekin, jatera zijoanetik pushka bat eman zirak.  
AGUSTIN Arrek zer egingo zikan bada ¡push! denena; sagardua saltziagatik datorren guztiyari ondo egin.

¡Ah tontua! Ik ez dakik emengo kontua: utzi zaizkik chorakeriyak, ez fiyatu gonadunakin denak elkarren antza ditek eta negarra besterik ez ditek ematen. Mutill zar, mutill zar, ni bezela biba mutill zarrak, galtza dunak libre, kayuen modura lema jiratu ta naidan aldera, emakumiak eta katuak sukaldera, bañan ezayela orrengatik tristetu, guazen era zagun eta pakia eman zagun.

INAZIO  
AGUSTIN

Ez, gaitz egingo zirak. (*esheritzenda*)  
(*jendiari*) Ori ziriya sartu diyot gizarajuari, baleki dena gezurra dala eta gañera bere alde denak aritu dirala esanaz; -desiatuko edo poztuko lirakela biyak bat egitia. -Bai, gauza guziyak zenbat eta neke geyagorekin eta naigabe aundiyagorekin igaro ezkerro, ala berian gozotasun eta atsegintasun obiak ondoren izaten dira. ¡Chinistu dit gizarajuak! ¡ain da lotsatiya eta bildurtiya! orain eratera nua, eta bakarrik badago nezka... orren ordez neronek esango diyot ez geyago sufriarasteko eta goyan zer itz egin duten. (*Iñaziori*) Bai alator, ni eratera niak. (*Iñaziok kasorik ez diyo egiten*)

AGUSTIN

(*jendiari*) Bai nezkari esango diyot orren asmua, beragatik choratzen dagola, eta on Juanek ere nai dubela biyak bat-tutzia.

(*Iñaziori berriz*) ¿Iñazio mututu egiñ alaiz?

INAZIO  
AGUSTIN

(*oso legor*) ¡Ez!

Guazemak, erantzagun penak astutzeko, orain eraten dekenak, indartuko dizkik kemenak.

IÑAZIO  
AGUSTIN

¡Ua zori-orduan!

Ordu erdiyan ez alda igual?... guazemak, Maria... bera zio, bestela bakarrik niak eta biyenak erango dizkiat. (*joatenda*)

## OGEITA BOST-GARREN IRUDIA

### XXV

#### **Inazio bakarrik** (*alchaturik*)

IÑAZIO

¡Au samintasun arantzazkua da biyotzian sentitzen detana! ¡Au naigabezko egarri legorra! Bire zuzenian ezthropoz egiten dubenak ¿zer egingo ote du okerrian? pazientziya artu zagun aldan moduan, bai pazientziya. Jauna izan bedi au zure borondatia. (*pishka bat egon ta*) ¡Agur chinchueneko eche gogoangarriya! beti betiko agur, bizi naizen artian, ez naiz onera eta ingurura ere etorriko eta azalduko: bañan... (*indarrez*) bai, jakin nai det zeñ dan beste galaya ori, ezagutu nai det, nere begiz ikusi gabe ez

naiz sosegatuko. bestela berriz Mariaren abotikan aditu gabe ezetza ez naiz atzeratuko; egualdiyak ere mudatu egiten dira; esango diyot Mariari beste orrek nik bañan diru geyago izango dubela bañan biyotza askoz nik bañan chikiyagua dubela ¡zeiñ ote da ori! ¿ah? Agustiñek esan dit arrekin izketan emen egon dala, ori ote da? Nik egingo det modua ezagutu edo zeñ dan jakiteko.

OGEITA SEI-GARREN IRUDIA.

XXVI

**Lengua, on Juan, Pedro ta gero Agustin.** (*on Juan eta Pedro echetik irtenta.*) gero a. T. ta P.

PN JUAN. Nola gera Iñazio eudirik izango aldegu biderako? Zer diriskitzu?

IÑAZIO Jauna izan liteke, turmoi aundiya dabill emen inguruan.

PEDRO Ichurik ez dauka bada.

IÑAZIO Ichurik ez, bañan erasuak uste gabian sortutzen dira eta turmonada lertzen da.

ON JUAN Bai batzubetan bañan orain...

INAZIO Orai galanta eta uste gabekua.

AGUSTIN (*sagardotegitik aterarik*) Emen naiz ni ere; beok eche aldera joateko asmuan izango dira ezta egiya?

ON JUAN Bai, zubek ere bai?

AGUSTIN Ez jauna guk oraindik ez degu arrantzarik egiñ bañan... arrapatuko degu.

PEDRO ¿Bai alda arrapatzeko asmua?

AGUSTIN Jarriya degu beintzat amua.

PEDRO Beste parecho bana eran bearko dira oraindik arrapatzeko e?

IÑAZIO (*triste*) Nik ez beintzat tantorik ere... nayagonuke emendik ogei millas itsas erdirago banegoke.

ON JUAN Bete altzera pozez?

IÑAZIO Ez jauna naigabez.

PEDRO Zer dezu bada sotiña?

IÑAZIO Barrena daukat oso miña.

ON JUAN ¡Ah! ori da biotz-erria.

INAZIO Bai jauna biyotza erria, kishkaltzen daukat.

ON JUAN Zu beti egiya gordetzen.

IÑAZIO Eta beok illia artzen.

PEDRO Beraz Maria e?

AGUSTIN Bai lenago esan diyot dena, eta ez du zinistu.

IÑAZIO Ez ikusi arte.

ON JUAN Bai Iñazio bai, ziñista zenezake.

AGUSTIN Bere abotik orain bertan adituko dek. (*joatenda Mariyan billa.*)  
P. tan on J. Bai bai egiya dala.  
INAZIO Eta beok nondik dakite.  
ON JUAN Bere amak eta guk, denak lenago gauza orren gañian mintzatu gera ¿Nola naidezu guk gezurra esatia? alaitu zaitia gizona orla motel egon gabe, suerte charra alda bada Mariarentzat?  
INAZIO Eta goyan beakin egon dan orrek maite aldu Maria.  
ON JUAN ¡Maite! Choratzen dago, eta nola ez, egunero etortzen da onera ta beti erregaliyak ekartzen dizka berari.  
IÑAZIO Orrenbesteraño.  
PEDRO Bai, zu ezagutzeko ere asmuak baditu, poztu Iñazio gauzak seguru jakiñ ezkeru penak utzi egin bear dira.  
IÑAZIO Ezin liteke ori izan.  
ON JUAN Bayetz gizona.

OGEITA ZAZPI-GARREN IRUDIA

XXVII

**Lenguak Agustin ta Maria** (*au Agustiñek eskutik elduta.*)

AGUSTIN Ara emen bera.  
INAZIO (*ziarka begiratuas*) Ta zer ederra dan ezker beltza ori.  
AGUSTIN Maria; esan egiya denen aurrian ¿ez alda egiya gizon gaya badezula?  
MARIA Bai eta bai.  
INAZIO (*jendiari*) ¡goyan dagona izango da!  
AGUSTIN Aditzen dek Iñazio? esan berriz Maria.  
MARIA Bayetz.  
INAZIO ¡Ta bayetz esaten du!  
ON JUAN Esango ez du bada?  
AGUSTIN Eta ez da egiya asko maite dezula?  
MARIA Berak ni bañan geyago.  
INAZIO ¡Faltzua! etzayakin zaude infernuban eta ni jartzen nau purgatoriyuan.  
AGUSTIN ¿Ez alda egiya mutillak nai badu beriala eskonduko zerala berekin?  
MARIA Bai pozik orishe.  
ON JUAN Aditzen dezu Iñazio?  
PEDRO Arrazoi algenuben?  
IÑAZIO Bai entzun det, bañan ez det zinizten.  
MARIA Biyotzetik esaten det bada.  
INAZIO Zuk biyotzetik? (*jendiari*) Onek ez du biyotzik bestela korchoskua da.  
AGUSTIN Eta naidek jakiñ zein dan arrantza au egiten duben zuertosua?

INAZIO. Esan aguro amuz zulatzen eruki azi gabe.  
AGUSTIN Bada... ik guchiyena pentzatzen dekana. Maria ekatzu bostekua (*jendiari*) au eskua, aingira bañan legunagua da, eta ik (*Iñaziori*) ere ekatzak bostekua, orra biyak itsasoko arrantz-obispuak elkartu; mutill zarrak zerbaiterako baliyo degu.

INAZIO (*aishkire*) ¿Egiya alda ikusten nagoen guziya?  
MARIA Bai Iñazio nere patroï aundiya.  
AGUSTIN Ain egiya, nola dan itsasua gaziya?  
INAZIO (*pozez*) Jesus maitia, Mariacho maitia, lagun zar maitia, beok maitiak...

ANDRE T. (*leyotik*) Zer da oju oyekin choratu egin altzerate ¿edo zer pasatzen da?

AGUSTIN Betor betor amona gaya.  
ANDRE T. Ornaiz berialashen.  
ON JUAN (*Pedrori*) Ondo konpondu dira.  
INAZIO Bañan ikusten nagoen egi guztiyak gezurra da diruri.

ON JUAN. Kontentu zerate e?  
PEDRO Egon litezke.  
AGUSTIN Erria kordela.  
INAZIO Au poza neria, esan zaidazu berriz ta berriz, ez naiz azeko entzutez nere izar edera.

MARIA Zuria naiz ta zuretzako izango naiz.  
ANDRE T. (*etortzenda*) ¿Beraz konpondu zerate?  
AGUSTIN ¿konpondu? autziyak aldaude bada?  
ON JUAN Ea aditu nere iritziya edo oraingo asmua. Nola biyak zeraten nere ezagunak, edo chit maitiak, ni izango naiz suben apaidiña, bedorri andre Teresha amaidiña eta zubek izango zerate testigu.

AGUSTIN Jauna abek ez dute testigu biarrik.  
ANDRE T. (*Mariari*) Orain kontentu izango zera?  
MARIA Nik arrapatzen ditutan arrayik goshuenak zuretzat izango dira maite neria.

AGUSTIN ¡Errien banda! Noiz bait garbi esangodek zerbait lagun zarra; eta lenbizi izaten dezuten frutua arra izaten bada...

DENAK Zer.  
AGUSTIN Nik erakutziko diyot igari; eta mielka izaten baldin bada...

DENAK Zer zer?  
AGUSTIN Nik botako det putsura.  
ANDRE T. Gizona choratu egiñ altzera.  
AGUSTIN Bai ur gazitan bedeikatzeraz zalitria izan dezala.  
INAZIO Oyek ikarak pasa ditut; aizak Agustiñ eta zeñ da bada or goyan dagon eskongaya eta erregaliyak ekartzen dizkana oni?

ON JUAN Ah... Orren zeluak zenituen? bada ori da... ezagutuko dezu aguro.

AGUSTIN Bai deituko diyot nik. (*joaten da*)  
ANDRE T. Zu zera beraz Iñazio?  
INAZIO Bai andria zerbitzeko.  
(*Agustiñ eta Praishku azaltzen dira*)  
AGUSTIN Ara emen topo egin det, bazetorren bera.  
INAZIO Ori alzan? Aitonen bat da ori.  
MARIA Bai nere osaba da.  
INAZIO Orain konturatzen naiz zu maitatzia eta erregaliyak ekartzia.  
PRAISHKU Kontentu zerate e? orla orla urte askuan.  
AGUSTIN Orla badaude urte askuan nekatuko dira.  
PEDRO (*Agustiñi*) Orrek beintzat arrapatu du arrai ederra.  
AGUSTIN Bai dontzella preskua, eta nik au bañan guchiyago ez naizela esateko gaur arrapatuko det izugarrizko...  
DENAK Zer?  
AGUSTIN Izugarrizko lupiya.  
PRAISHKU Ederki ederki (*jendiari*) ori arrantzale erremienta.  
ON JUAN Orduak aurreratzen ari dira eta abitu biar degu.  
AGUSTIN Eran zagun bada despeditzerako denak alkarrekin legorreko arrantzalien izenian (*jendiari*) eta beok gusto badute etorri choch-berriya eratera, ez dago eran ta pagarik neronek emango diyotet gaur pozik nai duten guziya.  
PEDRO Abiyatuko algera bada echera?  
ON JUAN Bai abiya gaitian bañan ortarako lenbizi Iñazio, aurreko jaun oyekin despeditu zaite.  
MARIA Bai jendiari agur egiñ gabe ezda ondo joatia.  
PEDRO Arrasoi du Mariak. (*bitarte ontan andre Teresha eta Praishku izketan atzerago egoten dira*)  
IÑAZIO (*aurreratuta*) Jaunak...  
ON JUAN Tira segui.  
INAZIO Zereko.... zera.... ta... bai... ta...  
AGUSTIN Alde egin zak, ortarako ere ez dek baliyo iri dena beztek esan bear dik (*jendiari*) onek esan nai dubena da...  
MARIA Berak esan dezala.  
DENAK Bai bai  
INAZIO (*aurreratu ta*)

Nola dan au izan bear  
dubena nere emastia  
gustatu bazayote, chalo  
bat nai nuke ematia  
eta onez bada beon  
gaurko borondatia  
kontentu geldituko da...  
Legorreko arrantzalia.

AZKENA